

Aldundiak AP-8, AP-1 eta GI-20 errepideetako 21,8 km-ren bidezorua birgaitzeko lanak esleitu ditu

Bidegiren Administrazio Kontseiluak argi berdea eman die ere Irun Mendebaldeko eta Orioko erdi-lotuneko ordainlekuen berritze lanei



Bidegiren Administrazio Kontseiluak ostiral honetan egindako bilkuran esleitu du AP-8 eta AP-1 autobideetako eta GI-20 errepideko 18 zatiko zoruaren errodadura-geruza berritzeko proiektua. Hain zuzen, 24 hilabetekoa izango da exekuzio-epea eta lan horien guztizko inbertsioa 6.245.000 eurokoa izango da (gehi BEZ). Proiektuak nagusiki AP-8 autobidean izango du eragina, 13 zati birgaituko baitira autobidean. AP-1ean eta GI-20an, berriz, bi zati berrituko dira errepide bakoitzean, eta AP-1eko 133. irteerako adarrean ere jardungo da, Bergaran. Azpimarratu behar da birgaitzeak eragiten dien egituretan dilatazio-junturak aldatuko direla eta trafikorako neurtze-esparrak berrezarriko direla.

Guztira, 21,6 km zoru lineal berrituko dira. Horrela, AP-8ko 13 tarteetan, Getariako 42,710 km-tik Eibarko 70,908 km-ra bitartean jardungo da. Zehazki, Zumaia-Getarian, Urolako biaduktuarien eta Meagasko tunelaren arteko zatia berrituko da, Behobiarako noranzkoan. Zestoako ordainlekuaren parean eta Behobiarako noranzkoan, beste bi zati berrituko dira, 2,7 km-ko luzerarekin. Deba eta Mendaro artean eta bi norabideetan, autobideko 9 km birgaituko dira, sei zatitan banatuta, eta Lizaranzuko biaduktuan edo Istiñako tunelean ere egingo dira lanak, besteak beste. Elgoibarren, San Antolin zubiaren parean, bide-zoru bat berrituko da Behobiarako noranzkoan, eta ia 600 metro Bilborako noranzkoan. Azkenik, Eibarren, Behobiarako 1,1 kilometroko erreia birgaituko da.

AP-1ean, bide-zorua berritzeak autobidearen enborearen bi zatiri eragingo die Bergaran, Gasteizerako noranzkoan, eta autobidearen irteera-adarrari udalerrri berean. Birgaitze osoa 3,8 km-ra iritsiko da berriro asfaltatuta. Azkenik, GI-20 errepidean, Donostia parean, bi zati berrituko dira, noranzko bakoitzean bana, 2 km-ko luzerarekin.



Neurriak afekzioak murrizteko

Bide-zatien birgaitzeak zirkulazio-intentsitate handia jasaten duten bide guztiz operatiboetarako eragingo dienez, neurri batzuk hartu beharko dira errepide-zati horietan ahalik eta gutxien eragiteko. Horrela, astelehenetik ostiralera, AP-8an eta GI-20an beharrezkoak diren erremozketak 11:00etatik aurrera egingo dira tarte batzuetan, jende gehien biltzen den goizeko orduak saihestuz, eta beste zenbaitetan gauetz baizik ez da jardungo. By-pass bidezko desbideratzeak asteburuetan egingo dira. AP-1ean, ordea, ez da mugarik egongo ebaketak eta desbideratzeak egiteko.

Era berean, uztailean, abuztuan eta irail erdialdera arte, astegunetan ez da zati jakin batzuetan lanik egingo, eta beste batzuetan gauetz bakarrik egingo da, oporren ondorioz trafikoa handitzen den egunak direlako eta, gainera, irteera- eta itzulera-operazioen egunetan lanak eten egingo dira. Nolanahi ere, mozketa eta desbideratze guztiak aldeztu aurretik jakinaraziko dira, ohiko informazio-kanalen bidez.

Irun Mendebaldeko eta Orioko ordainlekuen berritzea

Administrazio Kontseiluak, halaber, Irun Mendebaldeko eta Orioko erdi-lotuneko kobrantza estazioak berritzeko lizitazioa egin du, 1.966.000 euroko aurrekontuarekin (gehi BEZ) eta 12 hilabeteko exekuzio-epearekin.

Berritu ondoren, ordainlekuak bide dinamiko gisa jarduteko gaituta egongo dira, TAG gailu bateragarri bat irakurtzeko, hala nola Via-T edo Abiatu. Horrela, ibilgailuei pasatzen utziko zaie, abiadura murriztuz baina gelditzeko beharrik gabe. Era berean, zuzeneko artapenik gabeko bide automatiko gisa gaitu ahal izango dira bideok, hain zuzen, TAGarekin ordaintzeko, telefono mugikorren, erloju adimendunaren, banku-txartelaren edo eskudiru bidez. Horretarako, ordainlekuak matrikula irakurtzeko kamerak eta bereizmen handiko inguru-kamerak izango ditu, eta horiek ibilgailu mota, ordaintza mota guztietarako makina automatikoak eta erabiltzaile-operadore gisa urrutetik komunikatzeko mekanismoak zehaztuko dituzte.

Zarautz, 2023/07/07

La Diputación ha adjudicado los trabajos de rehabilitación del firme de un total de 21,8 kms en diferentes puntos de las carreteras AP-8, AP-1 y GI-20

El Consejo de Administración de Bidegi también ha dado luz verde a la renovación de las estaciones de los peajes de Irun M/O y el semi-enlace de Orio



El Consejo de Administración de Bidegi, celebrado este viernes, ha adjudicado el proyecto de renovación de la capa de rodadura del firme de 18 tramos de las autopistas AP-8 y AP-1 y de la carretera GI-20. Con un plazo de ejecución de 24 meses, la inversión total de estos trabajos será de 6.245.000 euros (más IVA). El proyecto afecta principalmente a la autopista AP-8 donde se rehabilitarán 13 tramos, mientras que en la AP-1 y en la GI-20 se renovarán dos tramos en cada una y también se actuará en el ramal de salida 133 de la AP-1 en Bergara. Hay que destacar que en las estructuras que se vean afectadas por la rehabilitación, se cambiarán las juntas de dilatación y se repondrán las espiras para el aforo de tráfico.

En total, se renovarán 21,6 kms lineales de firme. De esta manera, los 13 tramos de la AP-8 en los que se actuará se encuentran entre el pk 42,710 de Getaria y el 70,908 de Eibar. En concreto, en los términos de Zumaia-Getaria se renovará el tramo comprendido entre el viaducto del Urola y el túnel de Meagas sentido Behobia. A la altura del peaje de Zestoa y también en sentido Behobia, se renovarán otros dos tramos con una longitud total de 2,7 kms. Entre Deba y Mendaro y en ambas direcciones se rehabilitarán 9km de autopista divididos en seis tramos y que comprenden estructuras como el viaducto de Lizaranzu o el túnel de Istiña. En Elgoibar, a la altura del viaducto de San Antolín, se renovará un kilómetro de firme en sentido Behobia y otros casi 600 metros en sentido Bilbao. Por último, en Eibar, se rehabilitará 1,1 km de carril dirección Behobia.

En la AP-1 la renovación del firme afectará a dos tramos del tronco de la autopista en Bergara en sentido Gasteiz y al ramal de salida de la autopista al mismo municipio. La



rehabilitación total alcanzará los 3,8 km de nuevo asfaltado. Por último, en la carretera GI-20, a la altura de Donostia se renovarán dos tramos, uno en cada sentido, con una longitud de 2 kms.

Medidas para minimizar las afecciones

Dado que la rehabilitación de los tramos afectará a vías plenamente operativas que soportan gran intensidad de tráfico, su ejecución estará sujeta a una serie de medidas para minimizar las afecciones. Así, de lunes a viernes, los cortes de carril que sean necesarios en la AP-8 y en la GI-20 se efectuarán después de las 11:00 horas en algunos tramos y en horario nocturno en otros, evitando las horas matinales de máxima afluencia. Los desvíos mediante by-pass se ejecutarán en fines de semana. En la AP-1 no habrá limitación para los cortes y desvíos.

Asimismo, durante los meses de julio, agosto y hasta mediados de septiembre, entre semana no se trabajará en determinados tramos y en otros solo se hará de noche, al ser días que registran un incremento del tráfico debido a las vacaciones y, además, en las fechas de las operaciones de salida y retorno los trabajos quedarán interrumpidos. En todo caso, todos los cortes y desvíos que se vayan a producir serán anunciados con antelación por los canales de información habituales.

Renovación de los peajes de Irun M/O y Orio

El Consejo de Administración también ha licitado la renovación de las estaciones de cobro de Irun M/O y del semi-enlace de Orio, con un presupuesto de 1.966.000 € + IVA y un plazo de ejecución de 12 meses.

Tras su renovación, los peajes estarán habilitados para operar como vías dinámicas mediante la lectura de un dispositivo TAG compatible, como el Via-T o Abiatu, posibilitando el paso de los vehículos reduciendo la velocidad pero sin necesidad de detener el vehículo. También se podrán habilitar como vías automáticas desatendidas tanto para el pago con el TAG, mediante el teléfono móvil, reloj inteligente, tarjeta bancaria o en efectivo. Para ello el peaje dispondrá de cámaras de lectura de matrícula y cámaras de contorno de alta definición que determinan el tipo de vehículo, máquinas automáticas para todo tipo de pago y mecanismos de comunicación remota usuario-operador.

Zarautz, 2023/07/07